

argazkigintza > argi-ITZALAK

Natura eta irudia batuta

Mendia eta argazkilaritza bereiztea ezinezkoa da Benito Canterorentzat: eskutik heldutako bi zaletasun dira, orain dela 28 urtetik.

IDOIA ETXEBERRIA

S arri joaten da mendira Benito Cantero, eta inoiz ez bere reflex kamera gabe. Berdin dio oso urruti joan behar badu: «Batuetan kokoteraino amaitzen dut pisuarekin; kilo eta erdi pisatuko du igual. Kamera lepoan, motxila, pioleta, kranpoiak, askotan trabesiako eskiak ere bai... sufritu egin behar da pixka bat!», dio irribarrez. «Kosta egiten da, baina merezi du»; tontorre-raino igotzea bezalaxe. 17 urterekin hasi zen argazkiak ateratzen, mendian. «Pasatu dira urte batzuk, bai! Ordutik beti izan dut kamera bat ondoan». Eta ez mendirako bakarrik: «Konpaktu bat daukat poltsa batean, eta poltsa hori nirekin doa leku guztietara».

Bere kabuz hasi zen mendia eta irudia lotzen, eta baita argazkilaritza jorratzen ere. «Tira, soldaduskan nengoela CCCko ikastaro bat egin nuen, postaz, ikasteko denbora neukalako. Gero, argazkiak ateratzen ikasi dut. Eta dakitenei galdetzen, erakusketetara joaten... Hornabil, ikasten oraindik!». Ikasten eta irakasten, aldi berean: hainbat ikastaro eman ditu. Bergaran, Oñatin, Zarautzen...

«Denetik probatu dut, baina mendiko argazkiak gustatzen zaizkit gehien, naturakoak. Koloretan eta zuri-beltzean, biak gustatzen zaizkit asko. Eduki dut laborategia etxean, errebelatzeko, eta orain ordenagailuarekin jarraitzen dut gauza bera egiten». Dagoeneko ez du etxeko gela iluna erabiltzen. «Argi gorria, iluntasuna eta beti beldurrez ondo edo gaizki irtengo den... Xarma hori galdu egin da, baina digitalak beste abantaila asko dauzka: hasitako lana nahi duzunean laga dezakezu hurrengo egunerako. Laborategian hori ez da posible. Egun txar bat badaukazu, dena pikutara doa! Gainera, digitalak aukera gehiago ematen ditu: argazki gehiago ateratzeko, irudiak momentuan ikusteko...». Hori bizkarra ematea ezinezkoa dela uste du: «Arazoak daude diapositibak topatzeko eta errebelatzeko!».

Bera gustura geratzeko, argazkia «lehen kolpean sartu behar da begitik: plak! Eta gero, paisaietan

■ nortasun agiria

■ **Izena:** Benito Cantero.

■ **Jaio:** 1961ean, Mancha Realen (Andaluzia). Bergaran bizi da: «Hiru urterekin etorri ginen hona. Euskaldun berria naiz». Ederki moldatzen da bergarrez.

■ **Ogibidea:** Inprenta batean dabil.

■ **Argazkilaritza:** 17 urterekin hasi zen, bere kabuz, mendiko argazkiak ateratzen. Pol-Pol Argazki Taldeko koordinatzailea da, eta baita irakaslea ere: hainbat herritan eman ditu argazkilaritzako ikastaroak.

■ **Sariak eta erakusketak:** «Aspaldi nabil lehiaketetan, eta mendiko lehiaketetan nahiko ondo doakit». Garai batean argazki rallye askotan hartzen zuen parte, baina orain Bergarakoan bakarrik: «Asko ikasten da, interesgarria da, baina nik beti estresak jota amaitzen nuen». Donostian izan zuen azken erakusketa, uztailean, Okendo Kultur Etxean. «Nahiko exijentea naiz: erakusketak trinkoa izan behar du, eta lan handia da... Badaukat bat prest, baina ez naiz asko ibiltzen bila. Norbaitek eskatuko balit, gertu dago!».



■ **www.federacionfotografica.org**

konposizioa da niretzat inportanteena. Lekua polita baldin bada, eta konposizioa ondo eginda badago, ba erdia eginda dago!».

Argazkiez aparte, kirola du gustuko: «Pilota, frontenis, pala... Astero egiten dut, sasoiaren egoteko».



Udazkena, negua eta udaberria ageri dira irudiotan. Goian, udazkena Urbasan.



Elurra Peru Saroin.



Zuhaitza eta mitxoletak. Udaberria.